

Ozono-geruza suntsitzen duten substantzien mailak behera egin du atmosferan

Ozono-geruza suntsitzen duten substantzien mailak nabarmen murriztu dira atmosferan. Horixe erakutsi du [Nature Climate Change aldizkarian argitaratu duten azterketa](#) batek. Zehazki, hidroklorofluorokarbonatuen (HCFC) atmosferako maila nabarmen jaitsi da, lehenengoz.



Karbonoa Behatzeko Sistema Integratuaren (ICOS) Jungfrauoch estazioa (Suitza), hidroklorofluorokarbonoen neurketak egiteko erabili den behatokitako bat. ARG.: Jungfrau.ch.

Mundu osoan banatutako behatoki atmosferikoe-tan egindako doitasun handiko neurketen bidez lortu dituzte emaitzak. Eta ikertzaileek azpimarratu dute emaitza itxaropentsu horiek berretsi egiten dutela nazioarteko protokoloen garrantzia. Hain zuzen ere, 1987an adostu zen Montrealgo Protokoloa ozonoa suntsitzen duten substantzien ekoizpena eta erabilera erregulatzeko.

Protokolo horri esker, 2010etik mundu osoan debekatuta daude klorofluorokarbonatuak (CFC). Baina CFCak HCFCekin ordezkatu ziren neurri handi batean, eta orain horiek ere murrizteko fasean gaude. 2040an dago ezarrita epemuga HCFCak erabiltzeari guztiz uzteko.

2021ean iritsi ziren maximora HCFCen emisioak. Hurrengo bi urteetan zertxobait behera egin zuen, baina oso gutxi. Eta aurtengo neurketek, berriz, beherakada nabarmena erakutsi dute. ●

Elefanteek izenen antzekoak izan litezkeen deiak erabiltzen dituzte

Afrikako sabanako elefante basatiek elkarri deizteko erabiltzen dituzten deiak gizakiok erabiltzen ditugun izenen antzekoak izan litezkeela ondorioztatu dute ikertzaile batzuek, [Nature Ecology & Evolution aldizkarian argitaratu duten lanean](#).

Izurdeetan eta loroetan ere ikusi izan da elkarri zuzentzeko berariazko soinuak erabiltzen dituztela, baina kasu horietan hartzaileak egiten dituen soinuak imitatuz egiten dute. Elefanteen kasuan, berriz, ez dirudi horrela egiten dutenik, eta, beraz, ikertzaileek ondorioztatu dute gizakiok erabiltzen ditugun izenen antzekoagoak direla elefanteen deihoriek.



ARG.: George Wittemyer.

Ikasketa automatikoa erabiliz, elefanteen 469 dei aztertu zituzten ikertzaileek. Eta ikasketa automatikoko eredia gai izan zen dei horien hartzaileen % 27,5 identifikatzeko. Halaber, alderatu zuten 17 elefante basatik nola jokaten zuten haiei edo beste elefante bati zuzendutako deien grabazioak entzundakoan. Eta ikusi zuten elefanteak azkarra-go hurbiltzen zirela eta bokalki gehiago erantzuten zutela deia euri zuzendutakoa zenean. Horrek iradokitzen du elefanteek ezagutzen dituztela haiei zuzendutako deiak. ●